

Mutualiaren **PREBENTZIOZKO BEGIRADAK** XXIII. Lehiaketa

[2026]



**Prebentziozko
Begiradak**

Mutualiako Prebentzio Aholkularitzak abian jarri du **Mutualiako PREBENTZIO-BEGIRADEN LEHIAKETAREN XXIII. edizioa**. Lehiaketa **argazkirik onenaren** kategorian egingo da, eta material hauek sarituko dira: erakargarritasun artistikoaren bidez eta prebentzioaren egoera islatuz, gizartea laneko segurtasunaren eta osasunaren problematikari buruz kontzientziazatzen eta sentibilizatzen laguntzen dutenak, eta lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen prebentzioa eta enpresa osasungarria sustatzea helburu duten mezuak zabaltzen dituztenak; jardunbide egokiak balioetsiko dira.

Sariak, dirutan, honako hauek dira:

- Lehenengo saria argazkigintzan: 2.000 €
- Bigarren saria argazkigintzan: 1.000 €

Aurkeztutako materialek originalak eta parte-hartzaileak eginak izan beharko dute. Ezin izango dira aldez aurretik argitaratutako edota beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak aurkeztu. Materialak soilik estatuko egungo errealitatean oinarrituko dira.

Argazkiak:

- Digitalki editatutako argazkiak onartuko dira, baita ukitutakoak eta Adimen Artifizialeko (AA) tresnen bidez sortutakoak ere, baldin eta argazkiek lehiaketaren gaiari eta estatuko egungo errealitateari erantzuten badiote. Erregistro-formularioan esplizituki adierazi beharko da obra partzialki edo osorik AA bidez sortu dela. Adierazpen hori egin ezean, deskalifikatu egingo da argazkia.

- Koloretan eta zuri-beltzean egin ahalko dira.
- JPG formatu digitalean bidaliko dira.
- 6 megapixeleko bereizmena izan beharko dute gutxienez.
- JPG fitxategiaren tamaina ez da 10 MB baino handiagoa izango.

Behar bezala identifikatutako argazkiak (ABIZEN_IZENA_IZENBURUA) **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus** helbidera bidali behar dira. Material bakoitzerako "erregistro-formulario" bat bete beharko da, Mutualiaren webgunean (**www.mutualia.eus**) topatu daitekeena.

Argazkiak aurkezteko epea 2026eko martxoaren 15en amaituko da.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da, eta, **2026ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Eguna** ospatzearekin batera, MUTUALIAREN webgunean (**www.mutualia.eus**) eta **sare sozialetan** argitaratuko da.

Animatu eta hartu parte!

Lehiaketaren oinarriak webguneko **berrien atalean** aurkituko dituzu.

www.mutualia.eus